

EKONOMIAREN TALAIAN

Sasoikako langileak defendatu



JUAN MARI ARREGI


Eleazar Blandon nikaraguarra iazko urritik egon zen Bilbon asilo-eskaria formalizatu ezinik, lehenik sistemaren saturazioagatik eta gero konfinamenduagatik. Dokumentaziorik gabe eta lan egiteko aukerarik gabe, joan den abuztuaren hasieran Andaluziara joan zen bizitzera, Almeriara. Handik, kontraturik gabeko sasoikako langile gisa, Murtziara aldatu zen, baina egun batzuetara hil zen, itzalik eta urik gabe eta 44 gradutik gora sandiak deskargatzen aritu ondoren, 12 orduko lanaldietan. Lanean zorabiatuta erori zenean, kamioi batean sartu zuten, eta bakarrik utzi zuten ambulatorioaren atean. Bertan hil zen, osasun-langileen eskuetan.

Langile nikaraguarren zoritxarreko istorio hori sasoikako langileek, horietako asko migratzaileak, lan egiten duten baldintza eskasen adierazgarri da. Euskal Herria, Errioxa eta Nafarroa dira, bereziki, hilabete hauetan mahats-bilketaren ondorioz sasoikako langile asko hartzen dituzten lekuetako batzuk. Eleazar bezala, milaka etortzen dira gura ordu askotako lanaldi luzeak egitera, soldata eta baldintza oso eskasetan, oro har.

Administrazio publikoa, enpresak, sindikatuak eta gizarte-mugimenduak jakitun dira urtero prekarietate egoera horiek errepikatzen direla. Beharrezkoa da erne egotea eta pertsona horien eskubideak babestea. Horietako asko oso kalteberak dira gainera, migratu egin dute-lako eta langabezia daudelako. Orain, sasoikako langile gisa, etxebizitza eta lan-baldintzek are gehiago larriagotzen dute haien egoera hondatua.

Guztion erantzukizuna da, bai erakundeena nola enpresena eta herritarrena, hori arintzen laguntzea. Nola? Beren eskubide guztiak babestuz eta defendatuz. ●

ANALISIA



Bozgabetuak eta Banksy efektua

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Zenbat gertakari latz isilean pasa diren uda honetan ere... Gose grebaren 238. egunean ukan genuen Ebru Timtik abokatu kurduaren berri: berantegi, bere heriotzaren berri ukan genuen, ez ordea epaiketa justu bat lortzeko eskaerarena. Palestinarrek ere agorrila bonbapean pasa zuten, Mendebaldearen uda-giroa batere trabatu gabe. Gazako puxika lehergarriak vs. Israelgo bonba hilgarriak... baina berdin dio agorrilaren azken egunean aipamentxoa, "akordioa" lorturik puxikarik ez da gehiago airatuko -aipamen guti Israelek jaurtiki bonbei buruz-. Eta zenbat dira iritsi ere ez zaizkigun albisteak? Zenbat injustiziaren berri eman eta berriz eman, baina isilarazi dituzte boteredunen aldean diren prentsa-agentzia eta komunikabideek? Zenbat gorputz irentsi ditu Mediterraneoak? Itotzekotan ziren zenbat lagun ontziratu, baina oraindik dira noraezean itsasoaren erdian, estatu bakar batek ere ez dielako porturik eskaini nahi? Agintari europarren zenbat erabaki xenofobo ez ditugu jakin? Eta horra hor bat-batean *mainstream* komunikabide orotan dela injustizia: ontzi berri bat itsasoratu da, jada 219 ditu heriotzaren atzaparretatik salbatu. Milesker Banksy street-artista anonimo baina ospetsu dirudunari, Louise Michel izeneko ontzia finantzatu izanak gaia berriz zor zaion lekuan jarri duelako -oren labor batzuentzat ez bazen ere-. Baina batez ere eskerrak Pia Klemp ontziko kapitainari, berea "ekintza humanitarioa ez, baina bai borroka antifaxista" dela argitzeagatik. Hitzen hautaketak garrantzia duelako, izena eta izanaren arteko (des)loturak errealtate bat argiratu ala kamuflatu egiten duelako. Milesker Parisek eskaini zion medaila errefusatzegatik, "hipokritatzat" joz agintariak. Zeren bai, sistematikoki mugak hesten dabilen immigrazio-politika antolatu eta instituzional hau arrazista da, xenofobia eta hiltzailea. Palestina itotzen dabilen harresian 2005ean Banksy egindako muralaren gisara -hor ere puxikak, Israelen tiroen sinbolo- beste hamaika behar liratzek, bozgabetuen ondoan. Banksy gabe, iduriz ez direlako aipagai zapalduen eskubide urraketak. Samingarria, eta naski horrek ere berdin segituko du ezberdina nahiko genukeen koronabirusaren krisi globalaren bihar-munean. ●